

IRRIFARRA

Ander Esnaola, 10 urte

Ibarra

Zer da irribarre egitea!
Gauza zoragarri bat niretzat
Oso beharrezkoa dena eta diruarekin erosten ez dena
Eta norbere bihotza gaztetzen duena
Irribarreak ez du lotsarik ez minik.
Zoriona eta bizia baizik.
Irribarreak denak elkartzen ditu.
Zahar eta gazteak
Ez dut ezagutzen irribarre egiten ez dakienik
Baina bai zaila egiten zaionik
Irribarre gero eta beharrezkoagoa ikusten dut.
Mundu honetan jarraitzeko.
Irribarre egiten ez duenari oso gogorra egingo zaio.
Baina irribarre egiten duenari errazago egingo zaio.
Zorintsuagoa izango baita
Irribarre egiteko modu asko daude
Adibidez, niri gehien gustatzen zaidana begiekin
eta ahoarekin.
Eta baita bihotzarekin ere
Zer hobeagoa irribarre egitea baino?
Oso osasungarria baita urte asko irauteko
Denok ikasi beharko genuke irribarre goxo bat
egiten.